

Haurrak etxean ikasi familiarantzat erronka

FAMILIENTZAT AHOLKUAK

Koronabirusaren pandemiaren ondorioz denbora batez etxean geratu beharko genuela esan zigutenean, aspergarria izan zitekeela etorri zitzaigun burura, hainbat zeregin izango genituela konturatu ginen arte. Enpresarako telelana egin behar, gure seme-alaben behin-behineko irakaslea izan beharra, eta gainera, konfinamenduaren amaierara nola edo hala iristen saiatu beharko genuke. Baina guztietan, azkeneko hau izan daiteke zailena, galduago sentiaraziko gaituena.

Zorionez, zenbait baliabide eta laguntza izango ditugu, lana errazago egingo digutenak, nahiz eta iradokizun gisa hartu beharko ditugun, eta ez gure zaintzaren kalitatea neurtzeko termometro gisa.

Jarrera lasaiarekin hartu.

Familiak desberdinak gara, irakasleak bezala. Familia batean ondo funtziona dezakeena oso artifiziale izan daiteke beste batean. Helburua ez da perfekzioa edo besteek egiten dutena egitea.

Utzi haurrei aspertzen.

Mota guztietako estimulueta eta programatutako jarduera ugaritara ohituta daude. Hasieran zaila gerta daiteke. Eman diezaiogun aukera bat asperdurari. Irudimena, sormena eta autoaurkikuntza sor daitezke konturatu gabe.

Eutsi irakurketari.

Irakurtzeko trebetasunak mantentzea eta indartzea oso baliagarria izango da adin guztietan. Txikienei gustatzen zaie irakurtzea. Baina gogoratu lan guztia ez duzuela egin behar. Interneten askotariko audioliburuak dituzue, letrak eta irudiak dituzten ipuin-bideoak... adin desberdinetako neska-mutilak elkarrekin bizi badira, adinekoek txikienei irakur diezaieten bultza dezakezue. Ahal denean, utzi haiek izan daitezen irakurri nahia agertuko dutenak. Hori interesgarriagoa izan daiteke haiei irakurketa zehatz batzuk bilatu eta agintzea baino. Ez baztertu edo gutxietsi komikiak eta bestelako narrazio grafikoak.

Ez da ezer gertatzen matematika ondo ez badoa

Matematika irakasteko metodo berriak zuen esperientziatik urrun egon daitezke. Zorionez, oso baliagarriak izango zaizkizue baliabide asko eta onak Interneten. Zuen ikastetxean informazio zehatza emango dizuete, eskatzen baduzue.

Eguneroko zereginak ere gaitasunak irakasten dituzte.

Gela garbitu eta ordenatu, sukaldean errezetaren bat prestatzen lagundu, garbiketan lagundu, maskotak zaindu ... eguneroko errutinetan nola lagundu eta ekarpenak nola egin adostu.

Ordutegiaren edo eskemen bidez zereginak egiteko uneak ezarri... haien ekarpena balioestea eta ikusaraztea garrantzitsua da egunerokoak funtziona dezan.

Hautatzeko eta erabakitzeko aukerak eskaini.

Batzuek zein besteek zereginak ondo egituratuta eta planifikatuta behar dituzte izan, "galduta" ez sentitzeko. Beste batzuei, ordea, beren zereginak nola, noiz edo non egin nahi dituzten erabakitzen utzi diezaiekegu. Horrela, ikasteko eta pentsatzeko duten moduz gehiago jabetuko dira.

Pantailen aurrean pasatzen duten denbora antolatzen lagundu.

Eskolako lanak ordenagailuaren aurrean egiten igarotzen duten denbora eta aisialdi edota entretenimendu gisa pasatzen dutena bereiztea komeni da. Bereizi zer espaziotan egiten duten lan batzuek eta besteek, espazio espezifiko bat erreserbatuz eskolako zereginetarako ahal denetan. Mugikorra erabiltzeko denbora erregulatu dezakezu, baina gogoratu inoiz baino gehiago beratu bihurtu dela bere leiho nagusia harreman sozialetarako.

Eskolara buelta.

Eskola zereginetarako online asko sartzen ari badira ere, hau une egokia da jarduera ez hain "teknologikoak" berreskuratzeko. Animatu koloretako arkatzak, akuarelak, olioak ... atera eta eskuak zikindu ditzatela. Eskuzko lan erraz eta dibertigarriak egiteko une egokia da, material birziklatua edo etxean eskuragarri dagoena erabiliz. Senideei eta/edo lagunei eskutitzak eskuz idaztea ere proposatu dezakezue.

Adibidea eman autozaintzan.

Konfinamendu-garaian, norbere burua zaintzea lehentasuna da. Psikologikoki eta fisikoki lehentasuna izan behar du. Erlaxaziorako eta isiltasunerako denborak bilatu, ariketa fisikoak egiteko ohiturak ezarri... familian izan badaiteke hainbat hobe. Umorea eta jolasa tresna gisa erabili. Eta garbiketa-neurriak azpimarratu.

Senti dezaten eta beren emozioak adieraz ditzaten utzi.

Une honek aukera ematen digu gure seme alabei emozio kopuru handi bat izendatzen eta prozesatzen laguntzeko. Euren kezkek, beldurrak eta frustrazioak ezagutzen lagundu. Entzun eta bere ondoan izan. Ez gaude ezer konpontzeko, entzunak direla sentiarazteko baizik, kontuan hartuak izan bai eta ez boterea erakusteko soilik. Eman diezaiegun segurtasuna pixka bat urduri sentitzea normala dela esanez eta eskuak maiz garbitzea lagun diezagukeela edo zergatik ezin dugun kalera atera esanez. Egun hauek luzaroan gogoratuko dituzte. Ezohiko egoerei eta krisi egoerei aurre nola egin ikastea izan daiteke ikasgaririk garrantzitsuena.

Terry Petersetik egokitua "Teacher: 'You don't have to strive for perfect' when homeschooling your kids"